



Efoma - Batikano'fik.

Lourdes'ko yai zoragafiak amaitu ondoren, Pacelli kardinalak ango yaien bafi emoteko Aita Santua ikertu dau. Gomutakitzat atara daben ufezko dominea, Lourdes'ko Gotzainaren izean emon dautso. Aita Santuak ain ederto gustiak urten dabelako, Yaungoiko ta Andra Maria'ri eskar-emonaz erantzun eutsen. Yai onei pantzetafen artean ondo baño obeto yausi dira batez bere Pacelli agurgafiak egin eban azken-itzaldari, izpafingl geyenak toki andia emon dautse. *La Croix* ek osorik dakar, 300 lagunek alde gustiatatik elduak Andra Maria'ri bakea eskatu dautsela azaldu ondoren. Yai oneik, ots andia eginez gañera on andia egin dabe.

Yai egunen alde.

Italia'ko Katoliko-Ekintza'ko Gaste-diak, aste bat ospatu dau Yai egunak yai egitea gaitzat artuta. Itzaldi asko ta edefak gai onetzaz egin diran batzafetan egin ziran eta amaitu ebenean Aita Santua ikertu eban, erabagian bafi emoteko. Aita Santuak gai berberatzaz itzaldi edefa egin eutsen, Eleiza ta Yaungoikoaren etsayak, yai egunak ondartzeko alegin andiak egin dituela esanaz. Yai-eguna otoi-eguna da eta otoi itzez eta egitez, orixe da bidea Yaungoikoari bere izakiak menpetasuna agertu ta Yabetasuna autertzeko-ta. Zuzentzak eskatzen dabena da ta ez betetatik efin zoritxar andiak etorten dira. Ointxe bertan oartzan dan uritasuna be safitan oldoztu dabela, ofexen zigortza izango ez ete dan. Eta izan be, txafean ondoen aurkitzen dan Ingalanda'k yai-egunak ondoen zaintzen ditualako dala esan leike. Ori berak bein baño geyagotan Ingalanda'ra guda aufetik egindako osteretan oartu eban. Txaideak be eleizan zirudiela ixiltasunafen. Lotsagafia da izan be katolikotafontzat ez diranak yai-egunak zaintzen ikasbidea emotea.

Erlotzak.

Egunokaz il da Batikano'n Pacelli kardinalaren anai Pacelli markesa. 1874'n yayo zan. Lege-gizon ospetsua izan da, eta idazti sakonak idatzi ditu. Batikano'ko Itunbenean lan asko egin eban, eta oin Uri atako Itunlari orokafa izan da.

—Olanda'n il da Schioppa Laurentzi, Aita Santua'ren ordelari agurgafia. 1871'n yayo zan. 1920'n Gongotzain izentau eban eta Budapest'era Ordelari bialdu. Andik Olanda'ra aldatu eta antxe egunokaz il da.

—Txekoslovakia'tafak be atsekabez beterik dagoz. Dr. Nossek, ministro izan dana eta Katoliko - Ekintza'ren apostolu izan dana ointsu il da. Gizon benetan katoliko eredu au, Irugafendafa izan eta «Txirotxoaren» yafaitza lez txiro il da. Katoliko-Ekintza'ren alde lan gogor egin dau agintaritzan egon danean, eta al izan daben gustietan. Zinesgeak eurak be afituta gelditzen ziran aren yafabide edefakaz. Eta izpafingiak esan dabenez, eredutzat ipini leike eleizaren alde lan egin dabenen artean. Ondiño 49 urte bakafik zituan.

—Ingalanda'n be oraintsu il da William H. Kent aba, gizon yakintsu eta izkuntzetan gitxi lakoa. 54 izkuntza ekizan, eta izkuntza gayetaz idatzi sakonak idatzia da.

Lourdes'ko zertzelada batzuk.

Lourdes'ko yai egunetan eleizaren aufean toki egiten ebiltzan arduradunak. Emakumetxo bat bakafik bertan gelditu zan. Andik aldentzeko esan eutsoenean, afen eskatu eban bertan egoten lagatzeko: «Ni Lourdes'ko atsotxo bat naz, Bernardatxo ezagutu neban eta beragaz lenengo yaunartza egin neban». Arduradunak eskufik ar-

tu ta yarleku batera eroan eban eta anditek pozaren pozaz negafez eleizkizun gustia ikusi eban.

—Pacelli kardinalak Aita Santua'ren izenean Ama Sortzez Garbiaren onetan, zidafezko olio adartxo bat ipinteko ekafi eban. Lau neskato zuri yantzita eskintzeko aukeratu zituztan, iru Europa'koak eta bat Indietakoa, gustien izenean bakea eskatzen yakola adiratzeko nonbait.

Lourdes'en esan ziran 148 yaupatako asmoak bakoitziari Aita Santuak izentautakoak izan ziran.

Sendi eredu.

Befogei urte alkar ikusi barik egon ondoren, zortzi neba afeba, gustiak miñolariak, Paris'en aurkitu dira. Euroatik bat Marista da ta 25 urtean Ozeania'ko ugarteetan egonda. Bafiro biurtzeko dago. Beste bat pantzeskatarfa, India'n egon dana. Irugafena buruñurduna, ta laugafena Redentorista. Afbetatik bat pantzeskatarfa da, eta beste irurak Jesus'en Lagundiko lekaimela. Lekaimetxe onetan batu ziran, *Magnificat* abestu ondoren lau anayak lau afebai onespina emon eutsen. Villaine, Aita Santua'ren gudaria izan zan euren aita bederatzit semeetatik danak Yaungoikoarentzat izan ziran. Boskafen lekaima urte batzuk dirala India'n il zan.

Milan'go Ikastefxe Nagusian.

Ikastefxe ospetsu onetan, egunokaz Katoliko Ekintza'k eralduta batzafak izan dira, gizarte bazkuntza (corporativismo) adiraltzeko. Ikasle asko bildu dira eta irakasle ospetsuenak itz egin dabe. Ikastefxe ospetsu au urte gitxiz onantzakoa da, safitan esan dogunez, eta bertako zuzendari beñola osagile sozialista izandako Gemelli aba pantzeskatar aba da. Gemelli beste osagile baten aleginez ondu zan. Netchi osagile zintsoa izan zan oneratu eban. Oin gustiok dakigu zelako lan edefa egiten diarduan. Ikastefxe bafia berak irasi ebala esan lei. Eta gaur dauken etxe bafiztau edefa, lenago beneditafena izana, bafiztatzeko bear ziran 8 miloi lira, Katoliko Ekintzako 700.000 neskatiak batez be bildu zituzan. Orixe da lana ondo egitea!

Egazkiñak Mixiñoetarako.

Mixiñolariantzat gauzarik latzena toki batetik beste batera asko ibili bear eta bizitarik erdia bidean eralgitea da. Oin baña egazkiñagaz, askozaz lan geyago egiteko bidean dagoz. Ila bete ibili bear zan tokia ordu batzuetan igaroten dabe, eta alde ofetatik ez dogu uste asmakizun onuratsugorik izango dabenik. Ori ikusita aspaldian mixiñolariak egazkiñean ibiltzen asi ziran. Oin geyagotuz doaz. Egunokaz, Munitx'en Faulhaber kaldenak onetsi ditu Apirka'ko Mixiñoetarako egaz, kin bi eta amar beribil edo automobil. «Kurutze egazkaria»ren izena ipini dautse, eta erabiliko dituauna Schulte aba izango da, gudatean egazkari ospetsua Palestina'n izandakoa.

Buenos Aires'ko Eukaristi Batzafaren gomutaz.

Eukaristi batzar ospetsu onen gomuteak beti iraun dayen, batzorde bat izentau dabe Gotzain-eleiz eder bat egiteko. Aita Santua'ren ordelari Kortesi Agurgafiak ontzat emon eta Argentina'ko zinestearen ezaugafi edefena izan bear dabela adirazi dau. Amerika gustiko eleizarik edefena egiteko asmoa dauke. Batzordeko deduzko lendakari Erkal Lendakari Justo gudalburuaren emaztea da, eta bera be ardura osoz gauza eder bat izan daiten aleginduko dala esan dau.

Ondo Irabazlia.

Pantzetar txauburu idazle bikaña, «Pierre l'Ermita» izen-ordea erabiltzen dabena, Aita Santua'ren gelako «pre-

IZPARAK

BIZKAYA

Mañari.

Elizkixunak.

Lenengo barikuban Josu'ren Bijotz gozoaren opar, seiterdijetako mezan, Jaunartziak eta otoitzak egin ziran. ¡Aintza Bijotz gozoari!

Ofila'ko loraen inarkun deuna, ilaren lenengoan asi ta iluntzi guztijetan egiten da. Ta, elizkixun ofetan, Neskutza'ren irudija argi ta loraz ederto orniduta dala, gure umiak beti lez euzkerazko abesti edefak abestuzen dabe. Ainbat lagun elduten da egunero.

Eta ila onen 12'gn...

Goraldu dagigun kistar guztijak Jaungoikoaren Ama bikain Miren deun-deuna. Olantxe ta olantxe.

Gexoen Jaunartzia.

Elexara juan ezin diran gexoak, Pasko-aldiko Jaunartzia, igaroriko astian egin dabe. Jaunak osasuna emongo al-dautsoe; komeni ba-da...

Euriya.

Euriya biar izan ba-da, egin dau ba euriya. Ta zapafada andiz egin be. Euri-jauste onegaz lufa aro-onekotu egin dala-ta, danok gagoz pozik. Orain baña, solo-baratzentzat onuratsu ixateko, eguzkija ta eguraldi epe-lak biar ei-dira. Ori olan ba'litz, ze ederto!... Baña... sinizkortzuak garalako edo, esakun-zafak artega imini gau. «Mayetza otzak il, eta bagila oztaz gelditu».

Beraz, bada-epadan be, txartessak etzagiguzan bastertu; mafanten batek ortik-ziar eroan ezkadixan be, kanpoa galtza ezta ona ixango, ¡baña ez gau galtzia bel...

Izkirimiri.

Gixon batek jatetxe bateko etxe-kandriari.

—Zu, etxekandra, bazkaritarako gauza onik zer daukazu?

—Bildotsa, olaskua, lebatza, angulak eta abar.

—¡Angulak be bail ¡Zentelea! Ipinistazur orduban pare bat angula, gosiak ilik nago-ta.

MAÑARIKO

Akorda.

Aste onetan efi geyenak agertuko yakuz asteroko onetan egin daben eurijaren poza erakusten. Geure efiko «Lagaertze»'k inualez, siketia izan dogu nagusi; baña nai-beste euri egin dauskun ezker, basefatafak poza euran arpegijetan dabe agiri.

Orainguetan neu be eurijak asafaez naben afen, «Lagaertze» Akorda'ko izparkari aren zintzotasunak be ezin asafatu neu. Asi danik gaur-arte utzik barik ederto jafaituten dau berak, eta ikusten dodanez ez dau uesterik atzerantz egitego be. Ondo baño obeto deritxat. Ba... asko dira Akorda'n inor ete-dakal dabiltzanak, eta neure ustez naikua gatx izango dabe jakiten.—¡Zu... ixilik eta erakutsirik emon barik lagun, gaur-arte egiten dozulez!

latus» izentaua izan da. Edmond Loutil, auxe da bere izena, nai izan ba eban aspaldi Gotzain egingo eban, baña nayago izan dau Paris'en txauburu izan eta irakurgai eta zine onaren alde gitxik lako lana egin.

M.'tar G.

Irakurleak, ez dozube ikusten geure EKIN'eko efi buru ganian IZPARAK d'nuan tokijan zelan agertzen diran basefatar bi, aufez bat «pipiaz» eta atzez bestea EKIN irakurten? Ofeik gixon bijok Akorda'fak dira. ¡Ez al dozubez ezagututen? Baña tamalez ifi egitiafen edo, tximist-argi ari guzufezkuak bertan ipini dabez. Ari gañian uda-txori «enadak» ikusten doguz, oneik bai, oneik egizkuak dira, ba Akorda'ra be eldu yakuz; baña txorijok Akorda'n ari gañian jatsi beñian, etxe-telatu eta alper-afi gañian jatsiten yakuz.

Basefatar gixon bi ofeik, ikusten dogunez, afituta edo EKIN irakurten dabe. ¡Zek egin ete-ditu afitu? ¡biar bada geue efijan «Lagaertze»'k diñonez erderia lafegi egiten dalako ete dal Ba neure ustez ez da ofenbeste afitutekoa. Batetik geure abeslarijak eukelzaliak izan be-ta, erdera zaliak ez diralako. ¡¡Kontuz «Lagaertze» efatu barik!!

Geure efijan zorijonez euzkera dogu nagusi, bardin txadonan bardin txaidean, bardin etxean, bardin baster gustian. Ez ofegaitik, ba, izan, lagun, zeu diñozun «pena» edo tamalik.

Ene bijotzeko seme alabaren guraso on-onak zubentzako izpar jakingafi bat dot gaur azalgafi. ¡Zein dan! Ara... geure kistar-ekandu-zale onak eskabide bat egin dautse aldandi'ko jauna'ri. Eskabide au ez da besterik auxe baño: Auzo-ikastetxetan ataki itxia, ta jaitzat artu dadixala, urtean iru jai andi. Gorpuzti eta beste jai andi bi. Baña aldun jaun ofen erantzuna ezezkuia izan da. Orain gurasuak dauke onetzaz egin-biar eskubide oso-osua. Ez umerik egun ofetan ikastetxera bialdu. Zaindu geure efiko ekandu on eta zorundunak, ofegaitik inok ezaitube zigortuko-ta. Olan dirausku be geure lege-gixonak.

Zabalbeasko'ar Ixidor itxas-mutil jasekuari geure bostekua estutu dautsagu, ondotxu edo artzen dabe, ba matralak efime egin jakoz loditu.

Zorijon ondo etofi bijotzekua Eñan-txobe'bo «Lagaburu» izparkari bafi agertutekuari. Ixen - orde berezija zeugaz doz. Batetik «ertze» bestetik «buru», «Lagak» lagun on asko agiri dit. OGOÑOPE

Azalgayak.

Ifi, (burla) tximist-argi, (luz eléctrica) txaide, (calle) aldundi, (diputación) zorodun, (feliz) zigor, (castigo) berezi, (especial).

Gautegiz-Arteaga.

Ezkontzak.

Igaro dan larunbat goxeko seiretan ezkondu yakun geure Sebastio ospatsua be. Zorijonak.

Jayotzak.

Naberan'go Justo eta Petra'ri jayo yake laugafen alabia. Eta ugutzau dabe igande goxeko amabi-amabijetan, «Zafra» entefau ebenen baño euri geyago gotik-bera jausten zala. Alaba oferi, Justo, Maria del Karmen baño, Marina edo olako ixen bat ipini ba -euntson, oba ixango zuan, uretan jayo, uretan etofi eta uretan da uragaz bautixau ezker, eure antzeko mariñuen bat ixango dok eta.

Erderia sendo.

¡Eman dau erdera-zaletasuna, mu-

tilak! Batetik, señoifak; bestetik, señoifauak; ufengo, onen beste ixan gura leukienak;... ¡danak erderaz! Baña, gauzie da, ez batzuk ez bestiak, ondo batek be eztakijela, eta ondo dakijienak euren lepotik ederto bafe egiten dabiela... Lengo baten, Bilbao'ko aundiki batek esaten eban: «No he visto cosa más cursi que estos señoritos y señoritas de aldea, porque presumen mucho de tación y pisan con el contrafuerte, de una manera que hace reír a cualquiera». Onegaz esan gura eban, andi-guriagaifak erderaz egiten dabela, eta ondo dakijenen aufian motz gelditzen direla. Eta ofek dakijen bestien euzkeraz jakinda, euzkeraz egingo ba'leukie, inok baferik be eleuski-jue egingo eta olakorik be eleukie entzun-biar ixango.

Erderaz be, biar danian, egin biar da; baña Artiaga-lez dan euzkalefi utz-utzian zerderia gora eta erderia berz? Ori eztago ondo; ez gitxiagorik be.

Edozelan be makiñatxu batek euron lepotik bafe eginda juan biar dabe koifaduok mundu onetatik, «tako-ya»gaz lufa zapaldu bafian «kontrafuertia»gaz zapaltzen dabelako.

NONOR

Legendika (Kanala).

Lugiñak lari.

Mayatza'ren 2'gafen eguna da. Elizmendi'ko enparantzan jafita gagoz, lugin eta abar loretarako kanpai-otsa noiz entzungo. Zerura begitu eta odei bat be ez da agiri. Eurijak ufin dagoz. Soluan egun guztija sokilak apurtu ezin da igarota, nekatu-ta eldu dan batek, dirautso bestiar: Artuak erein dozak ala? Bai... baña irotuko ete diran da nago. Lugin-guak, ba, lafi dagoz.

Lugiñak pozik.

Mayatza'ren 4'gafen eguna da. Elexpian bafe-zantzoak entzuten dira. Odeyak negafez. Lugiñak, arpegi alayakaz. Bermeo'ko perijan, txalak bost ogerleko geyago egin dau gaur. Artuak berbiztuko dira. Motak ura darijola dagoz. Bedafa ugari ixango da. Lugiñak, ba, pozik dagoz.

Gudaritzara.

Ibarzabal'tar Paul mutik gaztia, gudaritzara juan da. Ondo ibili.

Tximist argija dala-ta.

Tximist argija etxian daukonak ez dabela beste tramankulorik biar da, andrak lafi ta estu dabiliz. Batak, gizonak egindako iru karbuero ontzi daukozala, bestiak oraintsu ekafitako «Petremax» edefa daukola, andikoak *gasollina* argi zer ikusiko bafi-bafija daukola, ofenbesteraño ezin eldu izan garianok *petroleo* tutuxe'gaz gelditu gariala. Eta zer egin? Saldu? Erdi duban saltzekotan obeto ibaira jaurti! Ez olakorik! Ara: egun baten, adafa joko dogu, batuko gara tramankuluak daukoguzan guztiok eta juango gara jantza-lekura. An oyu aundi bat egingo dogu eta Akorda'ko «Gero - arte»'k erantzungo dausku. Datofela ikusten dogunian, gugana eldu baño len, esango dautsagu: Bein ola, Elizmendi'ri bislud zeuntsan «Txo-koluen» ordez, emen izten deutzugu tramankulu oneik. Elizmendi'ri ondo etofi yakozan zure «txo-koluak», onek be zeuri ez yatzuz txarto etofi-ko ondiñokafen. Eta ¡Agur! esanda jatziko gara Legendika'ra.

ELIZ-MENDI